- **Servicio de Recaudación Ejecutiva** (hasta ahora Gesmupal, S.A.): se ha creado y dotado el puesto de Tesorera del Ayuntamiento reservado a personal con Habilitación Nacional. La gestión de recaudación ejecutiva recaerá en el departamento de Tesorería, se realizará una reordenación del Departamento poniendo así fin a la externalización del servicio de recaudación ejecutiva.
- **Resto de los contratos mencionados en el cuadro**: tendrá que licitarse el servicio.



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

kontratu irregularren fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez Alkateak hartutako ebazpen guztiekin batera eta puntu bereizi bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

*trámite de pago de las facturas de los contratos irregulares detallados hasta que lo resuelva el Alcalde. La interventora enviará este informe al Pleno, con las resoluciones adoptadas por el alcalde en relación a los reparos señalados e incluirá un punto independiente en el orden del día del correspondiente Pleno.*

### **2022/1536. DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**


- Kontu-hartzaileak abenduaren 19an egindako 2022/33 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak, administrazioek gardentasun-printzipioekin funtzionatzeko duten betebeharrak espediente guztiak zorrotzago eramatera behartzen gaituzte eta, gainera, gai askori buruzko informazioa beste administrazio eta erakunde batzuei eman behar diegu.
- Ingera txostenean zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara. Kontu-hartzailearen txostenean aipatzen den moduan idazkaritzatik eta kontu-hartzailetzatik, kontratazio bakoitzari dagokion teknikari arduradunarekin batera, kontratazio irregularrak zuzentzeko plangintza abian jarri da.
- Hala ere, irregulartasun egoeran dauden kontratazio hauek zuzendu bitartean zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da, kontuan izan behar baita zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako.

Horregatik guztiagatik:

#### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.


Irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira azaroa eta abenduan zehar:



<b><u>ERREPARO FAKTURAK</u></b> <b><u>FACTURAS REPARO</u></b>		<b><u>Azaroa eta abenduan zehar jasotako fakturak</u></b> <b><u>Facturas recibidas en noviembre y diciembre</u></b>		
<b>HORNITZAILEA</b> <b>PROVEEDOR</b>		<b>FAKTURA ZENBAK.</b> <b>Nº FACTURA</b>	<b>FAKTURA DATA</b> <b>FECHA FACTURA</b>	<b>ZENBATEKOA</b> <b>IMPORTE</b>
F20970018	ERRO KOOP. ELKARTEA (	016UTB.22	2022/12/01	8.476,55
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210104	2022/11/23	12,29
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210105	2022/11/23	22,47
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210103	2022/11/23	12,98
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210102	2022/11/23	103,93
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210101	2022/11/23	31,59
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210100	2022/11/23	16,6
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210099	2022/11/23	25,8
B20983060	2008 MAKELSAKO GIPIZKOA	210098	2022/11/23	13,03
B20737300	GOXARA, S.L. ( 4425 )	E.Z.O.	2022/11/30	30.621,09
B20737300	GOXARA, S.L. ( 4425 )	EELO 11/22	2022/12/07	26.505,49
G20202743	ALOTZA HAUR ESKOLA ( 170	87	2022/12/02	30.287,5
B95672630	CUARHTOSET TALENT &	286	2022/11/30	1.090,42
B20943213	IZAN INTERVENCION	159	2022/11/29	18.671,24
B20943213	IZAN INTERVENCION	160	2022/11/29	4.746,58
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988003	2022/11/13	421,91
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988012	2022/11/21	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988016	2022/11/24	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988027	2022/11/30	4.894,23
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988029	2022/11/30	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988030	2022/11/30	337,55
B20531448	LANDARRI, S.L.U. ( 3313 )	2211988000	2022/11/10	337,55
F20869053	IZT KOOP.E. ( 6278 )	2022//20221738	2022/11/25	1.539,85
A48913297	GESMUNPAL, S.A. ( 2676 )	0267	2022/12/14	2.382,87
<b>GUZTIRA</b>				<b>131.564,17 €</b>

- Taulako fakturekin batera helbideratuak dauden Euskalteleko, Iberdrolako, Repsol Butano, S.A., Endesa Energia, S.A., Securitas Direct, Wolters Kluwer España, S.A., Naturgy Iberia, S.A., TUV Rheunland Navarra, S.A. eta helbideratuta dauden beste hainbat harpidetza edo zerbitzuen ordainketa agintzea

Udalbatzarra, jakinaren gainean geratu da.



.....

**KONTU-HARTZAILEAREN INGERA**  
**ORRIA (2022/0034):**

**NOTA DE REPAROS DE LA**  
**INTERVENTORA (2022/0034):**

**GAIA: KONTRATU TXIKIEN  
TRAMITAZIOA BETE EZ DUTEN  
KONTRATU TXIKIEN FAKTURA  
IRREGULARRAK**

**ASUNTO: FACTURAS IRREGULARES DE  
CONTRATOS MENORES QUE NO HAN  
CUMPLIDO LA TRAMITACIÓN DE  
CONTRATO MENOR**

**A) Aplikagarria zaizkion arauak:**

**A) Normas aplicables:**

**a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea,  
azaroaren 8koa.**

**a.1) Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de  
Contratos del Sector Público**

118.1 artikuluari jarraiki, kontratu txikitat hartzen dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakok, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira.

*De conformidad con el artículo 118.1, se consideran contratos menores aquellos cuyo valor estimado sea inferior a 40.000 euros cuando se trate de contratos de obras o a 15.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o de servicios.*

29.8 artikulua ezartzen du kontratu txikiek ezin dutela urtebete baino gehiago iraun eta ezin dira luzatu.

*El artículo 29.8 establece que los contratos menores no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga.*

118.2 artikulua arabera, espedientearen izapidetzan, kontratazio-organoaren txostena behar da, non modu arrazoituan kontratuaren beharizanaren zioak jasoko diren. Era berean, justifikatu egin behar da ez dela kontratuaren objektua aldatzen ari SPKL 118.1 artikuluan jasotako zenbatekoak ekiditeko helburuarekin.


*De acuerdo con el artículo 118.2, en la tramitación del expediente se requiere informe del órgano de contratación en el que de forma motivada se recojan los motivos de la necesidad del contrato. Asimismo, deberá justificarse que no se está modificando el objeto del contrato con el fin de evitar las cuantías recogidas en el artículo 118.1 LCSP.*

Beraz, espedienteak kontratuaren objektu osoa jaso behar du, eta ezingo da kontratu txikirik ospatu kontratuaren objektua bidegabe zatikatzeko helburuarekin edota publizitate-baldintzak edo kasuan kasuko adjudikazio-prozedurari dagozkion arauak saihesteko asmoarekin.

*Por tanto, el expediente deberá recoger el objeto íntegro del contrato, sin que pueda celebrarse un contrato menor con la finalidad de fraccionar indebidamente el objeto del contrato o de eludir las condiciones de publicidad o las normas relativas al procedimiento de adjudicación de que se trate.*

Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira kontratu txikiarekin asebate

*A tal efecto, deberán determinarse con precisión la naturaleza y extensión de las*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

nahi diren beharren izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere. Alderdi hauek justifikazio-Memorian zehaztuko dira.

### **a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

#### “ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”


1. Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharr ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.
2. Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:
  - a) Eskubideak edo betebeharr ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.
  - b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.
  - c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan

*necesidades que se pretenden satisfacer con el contrato menor, así como la idoneidad o no del objeto y contenido del contrato para satisfacerlas. Estos aspectos se detallarán en la Memoria Justificativa.*

### **a.2) Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.**

#### “Artículo 67. Control de legalidad”.

1. *La función interventora en su aspecto de control de legalidad tendrá por objeto fiscalizar todos los actos de las Entidades locales y sus Organismos Autónomos que den lugar al reconocimiento y liquidación de derechos y obligaciones o gastos de contenido económico, los ingresos y pagos que de aquéllos se deriven, y la recaudación, inversión y aplicación, en general, de los caudales públicos administrados, con el fin de que la gestión se ajuste a las disposiciones aplicables en cada caso.*
2. *El ejercicio de la expresada función comprenderá:*
  - a) *La intervención crítica o previa de todo acto, documento o expediente susceptible de producir derechos u obligaciones de contenido económico o movimiento de fondos de valores.*
  - b) *La intervención formal de la ordenación del pago.*
  - c) *La intervención material del pago. Salvo que por acuerdo del Pleno sea autorizada la realización de este control por muestreo, la firma del Interventor se añadirá a las mancomunadas de disposición de fondos previstas en el artículo 57 de esta Norma Foral.*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

aurreikusitako fondoerako  
erabilpenerako amankomunatu  
erantsiko zaie.

### “70. artikulua. Ingerak.”

1. Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu bainolehen.
2. Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:
  - Espedienteen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.
3. Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

### **a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:

### “213. artikulua. Barneko kontrola.”


### Artículo “70. Reparos”.

1. *Establece la obligación del Interventor, en caso de mostrarse en desacuerdo con el fondo o con la forma de los actos, documentos o expedientes examinados, de formular sus reparos por escrito antes de la adopción del acuerdo o resolución.*
2. *Si el reparo afecta a la disposición de gastos, reconocimiento de obligaciones u ordenación de pagos, se suspenderá la tramitación del expediente hasta que aquél sea solventado en los siguientes casos:*
  - *En los casos de omisión en el expediente de requisitos o trámites esenciales.*
3. *Cuando el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso.*

### **a.3) Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.**

*En el segundo artículo se modifica el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, quedando del siguiente modo el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo:*

### Artículo “213. Control interno.”



Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailletza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoren eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.
3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko

*Los órganos interventores de las Entidades Locales remitirán con carácter anual a la Intervención General de la Administración del Estado un informe resumen de los resultados de los citados controles desarrollados en cada ejercicio, en el plazo y con el contenido que se regulen en las normas indicadas en el párrafo anterior.»*


*Artículo “218. Informes sobre resolución de discrepancias”.*

1. *El órgano interventor elevará informe al Pleno de todas las resoluciones adoptadas por el Presidente de la Entidad Local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.*

*Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.*

*El Presidente de la Corporación podrá presentar en el Pleno informe justificativo de su actuación.*

2. *Sin perjuicio de lo anterior, cuando existan discrepancias, el Presidente de la Entidad Local podrá elevar su resolución al órgano de control competente por razón de la materia de la Administración que tenga atribuida la tutela financiera.*
3. *El órgano interventor remitirá anualmente al Tribunal de Cuentas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por el Presidente de la Entidad Local y por el*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio».

*Pleno de la Corporación contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la Corporación local.»*

### ONDORIOAK:

Irregularitasun egoeran dauden fakturak atzeman dira, kontratu-txikien tramitazio eta prozedura bete ez dutelako. Zuzenean fakturak jaso dira kontu-hartzaitzan dagokion teknikari arduradunaren partetik kontratu txikiaren tramitazioa egin gabe, zuzenean ADO (baimendua, disposatua, obligazioa) fasea kontabilizatuz, aurretik gastu proposamenik jaso ez delako.


### CONCLUSIONES:

*Se han detectado facturas en situación de irregularidad por incumplimiento de la tramitación y procedimiento de los contratos menores. Se han recibido directamente las facturas en el departamento de Intervención, sin haberse tramitado el contrato menor, contabilizando directamente la fase ADO (autorizado, dispuesto, obligación) al no haberse recibido propuesta de gasto previa.*

Interesatua Interesado	fak. zenbakia Nro factura	Fakt. data Fecha fact.	Zenbatekoa Importe
B75147033 AKHONMEDIA	1324	2022/09/30	2.571,25
72438112A LECUONA FERNANDEZ DE	116	2022/11/18	623,15
A20095196 BABESA SUZAI, S.A. ( 578 )	249789	2022/11/18	612,13
B75225219 ION SIMON, S.L ( 6662 )	14	2022/05/26	2153,8
B20515987 MARGOGAI, S.L. ( 2016 )	1488	2022/06/30	1.037,03
B75147033 AKHONMEDIA	1325	2022/09/30	4537,5
B75147033 AKHONMEDIA	1352	2022/11/10	2.251,21
E20741856 M.E.RUBIO Y OTRO, C.B. -	F2022379	2022/11/28	1427,8
B20612131 INFORVISION ( 2445 )	22/46	2022/11/28	952,51
B20435830 APAIN, S.L. ( 256 )	22004006	2022/11/30	1.557,71
B20151213 GOIERRIKO ZURAK, S.L. (	471	2022/11/30	623,1
B20741054 IP21 INGENIERIA DE	22233	2022/12/07	1089
E75009217 NATALE GARIN Y OTRO CB -	14.273	2022/10/26	901,69
E75009217 NATALE GARIN Y OTRO CB -	14.274	2022/11/28	693,33
B75087866 INGECOM SISTEMAS ( 6334 )	220387	2022/11/30	910,65
B20435830 APAIN, S.L. ( 256 )	22003957	2022/11/30	2.736,03
G75050914 AZEN ORDIZIAKO	5	2022/12/05	1932,3
E75009217 NATALE GARIN Y OTRO CB -	14.108	2022/06/26	630,41
72493821Y KANACHE AMGHIRAR, NAJAT	1	2022/09/30	786,86
<b>GUZTIRA</b>			<b>28.027,46 €</b>

Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak

*Se paralizará el trámite de pago de las facturas detalladas hasta que lo resuelva el Alcalde. La interventora enviará este*



txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez Alkateak hartutako ebazpen guztiekin batera eta puntu bereizi bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

*informe al Pleno, con las resoluciones adoptadas por el alcalde en relación a los reparos señalados e incluirá un punto independiente en el orden del día del correspondiente Pleno.*

### **2022/1537. DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**


- Kontu-hartzaileak abenduaren 19an egindako 2022/34 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoen ezarpenak, administrazioek gardentasun-printzipioekin funtzionatzeko duten betebeharrak espediente guztiak zorrotzago eramatera behartzen gaituzte eta, gainera, gai askori buruzko informazioa beste administrazio eta erakunde batzuei eman behar diegu.
- Ingera txostenean zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara. Kontu-hartzailearen txostenean aipatzen den moduan idazkaritzatik eta kontu-hartzailetzatik, kontratazio bakoitzari dagokion teknikari arduradunarekin batera, kontratazio irregularrak zuzentzeko plangintza abian jarri da.
- Hala ere, irregulartasun egoeran dauden kontratazio hauek zuzendu bitartean zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da, kontuan izan behar baita zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako.

Horregatik guztiagatik:

#### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

Interesatua Interesado	fak. zenbakia Nro factura	Fakt. data Fecha fact.	Zenbatekoa Importe
B75147033 AKHONMEDIA	1324	2022/09/30	2.571,25
72438112A LECUONA FERNANDEZ DE	116	2022/11/18	623,15
A20095196 BABESA SUZAI, S.A. ( 578 )	249789	2022/11/18	612,13
B75225219 ION SIMON, S.L ( 6662 )	14	2022/05/26	2153,8
B20515987 MARGOGAI, S.L. ( 2016 )	1488	2022/06/30	1.037,03
B75147033 AKHONMEDIA	1325	2022/09/30	4537,5
B75147033 AKHONMEDIA	1352	2022/11/10	2.251,21
E20741856 M.E.RUBIO Y OTRO, C.B. -	F2022379	2022/11/28	1427,8



B20612131	INFORVISION ( 2445 )	22/46	2022/11/28	952,51
B20435830	APAIN, S.L. ( 256 )	22004006	2022/11/30	1.557,71
B20151213	GOIERRIKO ZURAK, S.L. (	471	2022/11/30	623,1
B20741054	IP21 INGENIERIA DE	22233	2022/12/07	1089
E75009217	NATALE GARIN Y OTRO CB -	14.273	2022/10/26	901,69
E75009217	NATALE GARIN Y OTRO CB -	14.274	2022/11/28	693,33
B75087866	INGECOM SISTEMAS ( 6334 )	220387	2022/11/30	910,65
B20435830	APAIN, S.L. ( 256 )	22003957	2022/11/30	2.736,03
G75050914	AZEN ORDIZIAKO	5	2022/12/05	1932,3
E75009217	NATALE GARIN Y OTRO CB -	14.108	2022/06/26	630,41
72493821Y	KAANACHE AMGHIRAR, NAJAT	1	2022/09/30	786,86
<b>GUZTIRA</b>				<b>28.027,46 €</b>

Udalbatzarra, jakinaren gainean geratu da.

.....  
**KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA**  
Dirulaguntzak izendunak

**Gaia:** 2022ko dirulaguntza izenduna

**KONTU HARTZAILETZA TXOSTENA 2022 DENBORALDIKO DIRULAGUNTZA**  
**NOMINATIBOA JAKINTZA IKASTOLA**


Ikusirik txostena luzatu duela udal idazkariak JAKINTZA IKASTOLAREN dirulaguntza nominatiboaren inguruan 2022 denboraldiari dagokiona.

Kontuan harturik 21/2003 Foru Arauak bere 68 arauetan jasotako, zehazki “Eraginkortasunaren eta efizientziaren kontrol ekonomikoa aurreko artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako egintzen gainean egingo da eta, egitaraupeko ekintzei eta lortu nahi diren helburuei begira, honako hauek eskuhartuko ditu:


a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.”

Hori dela eta honakoak jasotzen dira txosten honetan:

**Lehen.**- Fiskalizatzen diren baldintza orokor eta gehigarriak:



A.	Leg. erref.	Oinarrizko baldintza orokorrak	BAI/EZ/ EZ DAGOKIO
A.1 ERAGOZPE N ETENERAZL EA	- TEAFA 19.3 art. - AEFD 3.5ª - BKFD 13.2 a) art. - DLO 9.4.b) art.	Aurrekontu-kreditua egotea; proposatutako kreditua egokia izatea kontuan hartuta proposatzen den gastuaren izaera, eta espedienteari eranstea kreditua dagoenaren ziurtagiria edo antzeko agiri bat. <i>(Kredituak, egokitzen jo ahal izateko, baldintza hauek bete behar ditu: haren bidez finantzatzea toki-erakundearen diruzaintzaren kontura hartu behar diren edo sortu diren obligazioak, preskribatuta ez daudenak, eta 21/2003 Foru Arauaren 19. artikuluan ezarritako baldintzak zein Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren lehen zatian, Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparruan, jasotakoa betetzea).</i>	BAI
A.2 ERAGOZPE N ETENERAZL EA	- BKFD 13.2 a) art. - TEAFA 22 art.	Urte anitzeko gastu konpromisoak hartu behar badira, 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa betetzen dela.	EZ DAGOKIO
A.3 ERAGOZPE N ETENERAZL EA	- BKFD 13.2 a) art.	Finantzaketa lotuko gastuen aurretzako izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian, eta hura finantzatzen duen bitartekoa kontsolidatuta egotea.	EZ DAGOKIO
A.4 ERAGOZPE N ETENERAZL EA	- BKFD 13.2 a) art. - DLE 56 art.	Finantzaketa lotu gabeko gastuen aurretzako izapidetzea bada, baldintza etenarazle hau sartzea: gastua baimendu ahal izateko, kreditua egotea gastua egin beharreko ekitaldian.	BAI
A.5 ERAGOZPE N ETENERAZL EA	- BKFD 13.2 b) art. - DLO 9.4.a), 17.3 g) art. - DLE 65, 67 art. - TEAFA 41. art	Gastua organo eskudunak sortzen duela.	EZ
B.	Leg. erref.	Oinarrizko baldintza gehigarriak	BAI/EZ/ EZ DAGOKIO
B.1	- AJAED 172, 175 art. - SPAJL 50 art.	Organo kudeatzaileak aldeko txostena ematea.	EZ
B.2	- DLO 22.2 art. - DLE 67 art.	Zuzenean emateko dirulaguntzak ondoko inguruabarretako bati doakio: - Tokiko erakundearen aurrekontuetan ageri dira dirulaguntza izendun gisa. - Dirulaguntzaren emakida edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezarrita dau(z)ka, laguntza bakoitzari aplikatu beharreko prozedura berriazkoa jarraituz. - Interes publiko sozial, ekonomiko edo humanitarioari lotutako arrazoiak adierazten dira edo deialdi publiko bidez ematea zailtzen duten beste interes publikoko arrazoi batzuk adierazten dira, dirulaguntzen izaera berezia egiaztatzeko.	BAI: Tokiko erakundearen aurrekontuetan ageri dira dirulaguntza izendun gisa.
B.3	- DLO 22.2 art.	Arloa zein den, eskumena daukan organo kudeatzailearen txostena izatea, eta txosten horrek justifikatzea dirulaguntzen izaera salbuespenezkoa, interes publiko sozial, ekonomiko edo humanitarioa arrazoituta, edo deialdi publiko bidez ematea zailtzen duten beste interes publikoko arrazoi batzuk adierazita.	EZ
B.4	- DLO 13, 23 art. - DLE 22, 23 art.	Onuraduna izateko debekurik ez duela egiaztatzea.	BAI



B.5	DLO 8 art.	Deialdia dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusita egotea.	BAI
B.6	DLO 28 art. DLE 65,67 art.	Emateko erabakiak edo hitzarmenak bete beharreko gutxieneko betekizunak jasotzea.	BAI

**Oinarrizko baldintza orokorrak:**

- Gastuari aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa dago, ondorengo aurrekontu-partidaren kontura:
  - Diru-kopurua: 40.000,00 euro
  - Aurrekontu partida: 1 481.02.323.30.0133 2022
- Espedientea fiskalizatzeko, sinatzen duen kontu-hartzaileak onartzen du:
  - Gastuari aurre egiteko aurrekontuan kreditua dagoela.
  - Proposatzen den gastuaren izaera egokia dela, proposatutako kreditua kontuan hartuta.
  - Sortutako gastua dagokion organo eskudunak sortutakoa dela.

Horrez gain, prozeduraren ikuspegitik, Idazkaritzaren txostena bere egiten du kontuhartzailetza honek. Era berean, adierazten da espedientean ez dagoela dirulaguntza hori ematea aurreikusten duen txosten teknikorik.

Bestalde, adierazten da, 2021IKOA0011 espedienteko txosten juridikoak azaltzen duen moduan ituneko ikastetxeen mantenua ez dela Udal eskumenekoa, Eusko Jaurlaritzarena baizik. Zentzu horretan, adierazi behar da Ordiziako Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantzaren 6 a) artikuluari jarraiki ondorengo diru laguntzak eman aurretik bete beharreko baldintzetako bat dela organo administratiboaren eskuduntza.


**ALDEZ AURREKO FISKALIZAZIO MUGATUAREN EMAITZA:**

- Etete ondorioak dituen eragozpenez fiskalizatua, Ordiziako Udalak ez baitu aipatu gastuak finantzatzeko eskumenik. Beraz, planteatutako desadostasuna konpondu beharko da.

**2022/1585. DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak 2022ko abenduaren 26an egindako txostena, Jakintza Ikastolaren dirulaguntzari ingera adierazten diona (2022DIZU0028) espedientea.
- Aipaturiko dirulaguntza izenduna Jakintza Ikastolak Ordiziako Udalarekin 2017ko uztailaren 13an izenpetutako hitzarmenean oinarritzen da, 2021eko apirilaren 7ko



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

0397/2021 Alkate dekretu bidez urtebetez luzatzea erabaki 2022ko uztailaren 13ra arte. Bertan, Udala Ikastolako mantenu eta funtzionamendu gastuak diruz laguntzera konprometitzen da.

- Aipaturiko dirulaguntza Ordiziako Udaleko aurrekontuetan jasota dago dirulaguntza nominatibo gisa eta Ordiziako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ere aurreikusita dago.
- Onuradunak dirulaguntza jasotzeko araudiak eskaturiko baldintza guztiak betetzen ditu.
- Hitzarmena berrikustea beharrezkoa den arren, gaur egun dagoen lan-pilaketak hori egitea zailtzen du. Halere, ordainketa hau 2021-2022 ikasturteari baino ez dagokio, 2022-2023 ikasturtean dirulaguntzaren birkonfigurazio bat egingo baita.
- Hala ere, irregulartasun egoeran dagoen dirulaguntza hau zuzendu bitartean dirulaguntza ordaintzea egokitzen da, Ordiziako Udalak aipatutako hitzarmenean hartutako konpromezuen baitan.

Horregatik guztiagatik:

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

2022DIZU0028 espedientearen bidez izapidetzen den Jakintza Ikastolaren aldeko 40.000,00 euroko dirulaguntza ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak dirulaguntza eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.


Udalbatzarra, jakinaren gainean geratu da.

.....

### **KONTU-HARTZAILEAREN INGERA ORRIA (2022SPJU0003):**

**GAIA: I.H.E. aurrejubilazioa 63 urte eta 2 hilabeterekin, 2022ko abenduaren 29tik aurrerako efektuekin**

1. Espediente-zenbakia: 2022SPOJU0003
2. Espediente mota: Langileen aurrejubilazio primak onartzea eta ordaintzea.
3. Gastuaren fasea: ADO
4. Gastuaren fasearen zenbatekoa: 37.273,00 euro.
5. Aurrekontuaren aplikazioa: 1 kapitulua 1 161.03.221.00.0224 2022 (3010) partida



## LEGERI APLIKAGARRIA

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa. IV. TITULUA: KONTROL KONTU-HARTZAILEA

2. 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.

### AURREKARIAK

-2022ko uztailaren 29an, I.H.E. udal langileak erretiro aurreratua hartzeko asmoa azaldu zion Udalari. Era berean, eskaeran adierazi zuen Ordiziako Udaleko Arrazionalizazio Programako 4. Artikulua aplikatzea nahi zuela eta adierazi zuen aurrejubilatutako egingo zela, 63 urte eta 2 hilabeterekin, 2022ko abenduaren 29tik aurrerako efektuekin.

-Udal idazkariak 2022SPJU0003 espedientean aurkako txosten juridikoa egin zuen 2022ko urriaren 28an. Bertan, 2021IPB10004 espedienteak barneratzen duen txosten juridikoa kontuan hartuz, ondorengo adierazten da:

***“Kontrako txosten juridikoa egin da erretiro aurreratuagatik primak eta enplegatu publiko izateari uko egiteagatik kalte ordainak ordaintzen jarraitzeko, Ordiziako Udaleko Giza Baliabideak arrazionalizatzeko Programak jasota daudenak, hain zuzen, Auzitegi Gorenaren azken jurisprudentzian oinarrituta, legez kontrakoak direla argudiatzen delako.***

***Horiek horrela, bidezkoa da indarrrik gabe uztea eta indargabetzea Ordiziako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa.***


*Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, adierazi behar da, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 22.2.d artikuluan oinarrituta Udalbatzari dagokiola erabakia hartzeko eskumena.*

*Aldez aurretik, behin Jarraipen Batzordea edo Negoziazio Mahaia informatu ondoren, beharrezkoa zango da Batzorde Informatiboak aldeko irizpena ematea.*

*Behin organo eskudunak Akordioa hartu ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.*

*Hauxe da informatzen dudana, zuzenbidean egokiagoa izan daitekeen beste edozein txostenen eta Udalak egokiena dela deritzona erabakitzen duenari kalterik egin gabe.”*

-Aipatutako 2022SPJU0003 espedientea izapidetzeari kontuhartzaitzak ere kontrako txostena egin zuen, adieraziz, txostenean adierazitakoaren aurkako



ebazpen administratibo bat egonez gero hari eragozpen oharra egingo zitzaiola, 21/2003 Foru Arauak jasotako kasuetan izaera etenarazlea izan zezakeena.

Txosten berean aipatzen da Ordiziako Udaleko Osoko Bilkurak urrian egindako ohiko bileran akordioa hartu zuela Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana bertan behera uzteko, baina, 2022an erretiroa hartu edo langile publiko izateari uko egiten dioten langileak akordiotik kanpo utziz.

- 21/2003 Foru Arauak 70.3.c artikuluan dioenari jarraiki *“bidezkoa da eragozpen etenarazle bat azaltzea ... c) **Espedientean funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.**”*

Zentzu horretan, 32/2018 Foru Dekretuaren 12.2 artikulua dio *“Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero: ... **baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatua gelditu daitekeenean.**”*

- Hori dela eta, aipaturiko primen legez kontraktasuna kontuan hartuta, ingerak izaera etenarazlea izango du.

#### **ONDORIOAK:**


Kontu-hartzailletza honek, 2022KERR0017 txostenean eta espediente honetako lehen txostenean adierazitakoak berresten ditu, Idazkariak abuztuaren 5an igorritako aurkako txostenean jasotakoa (2021IPB10004 espedientean dagoena) eta Auzitegi Gorenaren azken jurisprudentziak (aipatutako txostenetan azaldutakoak) diotena jarraituz, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa legez kontrakoa dela ulertuz.

I.H.E. langileak 2022ko abenduaren 29ko ondorioekin aurrejubilatzeke adierazi duen borondatea dela eta kalteordainak jasotzea ez dagokiola ondorioztatzen da, Ordiziako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa legez kontrakoa dela ulertzeagatik. Hori dela eta, **eragozpen etenarazle hau egiten da.**

#### **2022/1483. DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak abenduaren 29an sinatutako 36/2022 ingera txostena, (2022KERR0036), I.H.E. udal langileak eskatutako aurrejubilazio prima ordaintzeari buruzkoa.
- Ordiziako Osoko Bilkurak 2022ko urrian eginiko ohiko bilerako akordioa, zeinaren arabera Ordiziako Udaleko Giza Baliabideen Arrazionalizaziorako Programa bertan behera uzten zen, baina 2022an erretiroa hartu edo langile publiko izateari uko egiten zioten langileak akordiotik kanpo utziz.



- 2022ko abenduaren 23ko 1337/2022 Alkate Dekretu bidez erabaki zen *“Baiestea Iñaki Hidalgo Ezenarro udal enplegatu publikoaren erretiro aurreratuaren eskaria, 2022ko abenduaren 29tik aurrerako ondorioekin, egun horretan amaituko delarik Ordiziako Udalarekin duen funtzionario-harremana.”*. Dekretu beraren bidez erabaki zen *“Baiestea Ordiziako Udaleko Giza Baliabideen Arrazionalizaziorako Programako 4. artikulua aplikazioa eta ondorioz, aitortzea 37.273€-ko kalte-ordaina zerbitzu harremana erretiro aurreratuaren bidez amaitzeagatik.”*.
- Primaren ordainketa 2022 Udal Aurrekontuan onartuta dagoela 1 161.03.221.00.0224 2022 (3010) partidari; eta aipatutako partidak nahikoa kreditua daukala.

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

I.H.E. langileari aurrejubilazio prima ordaintzea, 37.273,00 eurokoa, 1 161.03.221.00.0224 2022 (3010) partidaren kontura.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

.....


### **KONTU-HARTZAILEAREN INGERA ORRIA (2022SPJU0004): 37.TXOSTENA**

**GAIA: A.U.K. lanpostuari uko egitea (errenuntzia), 2022ko abenduaren 31ko ondorioekin.**

1. Espediente-zenbakia: 2022SPOJU0004
2. Espediente mota: Langileek enplegatu publiko izateari uko egiteagatik primak onartzea eta ordaintzea.
3. Gastuaren fasea: ADO
4. Gastuaren fasearen zenbatekoa: 31.818,00 euro.
5. Aurrekontuaren aplikazioa: 1 kapitulu 1 161.03.221.00.0224 2022 (3010) partida

### **LEGERI APLIKAGARRIA**

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa. IV. TITULUA: KONTROL KONTU-HARTZAILEA
2. 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.



## AURREKARIAK

-2022ko abuztuaren 30ean, A.U.K udal langileak enplegatu publiko izateari uko egiteko asmoa azaldu zion Udalari. Era berean, eskaeran adierazi zuen Ordiziako Udaleko Arrazionalizazio Programako 5. Artikulua aplikatzea nahi zuela eta adierazi zuen enplegatu publiko izateari uko egingo ziola 2022ko abenduaren 31tik aurrerako efektuekin.

-Udal idazkariak 2022SPJU0004 espedientearen aurkako txosten juridikoa egin zuen 2022ko urriaren 28an. Bertan, 2021IPB10004 espedienteak barneratzen duen txosten juridikoa kontuan hartuz, ondorengoa adierazten da:

***“Kontrako txosten juridikoa egin da erretiro aurreratuagatik primak eta enplegatu publiko izateari uko egiteagatik kalte ordainak ordaintzen jarraitzeko, Ordiziako Udaleko Giza Baliabideak arrazionalizatzeko Programak jasota daudenak, hain zuzen, Auzitegi Gorenaren azken jurisprudentzian oinarrituta, legez kontrakoak direla argudiatzen delako.*”**

***Horiek horrela, bidezkoa da indarririk gabe uztea eta indargabetzea Ordiziako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa.***

*Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, adierazi behar da, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 22.2.d artikuluan oinarrituta Udalbatzari dagokiola erabakia hartzeko eskumena.*


*Aldez aurretik, behin Jarraipen Batzordea edo Negoziazio Mahaia informatu ondoren, beharrezkoa zango da Batzorde Informatiboak aldeko irizpena ematea.*

*Behin organo eskudunak Akordioa hartu ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.*

*Hauxe da informatzen dudana, zuzenbidean egokiagoa izan daitekeen beste edozein txostenen eta Udalak egokiena dela deritzona erabakitzen duenari kalterik egin gabe.”*

-Aipatutako 2022SPJU0004 espedientea izapidetzean kontuhartzaitzak ere kontrako txostena egin zuen, adieraziz, txostenean adierazitakoaren aurkako ebazpen administratibo bat egonez gero hari eragozpen oharra egingo zitzaioela, 21/2003 Foru Arauak jasotako kasuetan izaera etenarazlea izan zezakeena.

Txosten berean aipatzen da Ordiziako Udaleko Osoko Bilkurak urrian egindako ohiko bileran akordioa hartu zuela Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana bertan behera uzteko, baina, 2022an erretiroa hartu edo langile publiko izateari uko egiten dioten langileak akordiotik kanpo utziz.



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

- 21/2003 Foru Arauak 70.3.c artikuluan dioenari jarraiki *“bidezkoa da eragozpen etenarazle bat azaltzea ... **baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatua gelditu daitekeenean.**”*

Zentzu horretan, 32/2018 Foru Dekretuaren 12.2 artikulua dio *“Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero: ... b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen **direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.**”*

- Hori dela eta, aipaturiko primen legez kontraktasuna kontuan hartuta, ingerak izaera etenarazlea izango du.

### **ONDORIOAK:**


Kontu-hartzailletza honek, 2022KERR0017 txostenean eta espediente honetako lehen txostenean adierazitakoak berresten ditu, Idazkariak abuztuaren 5an igorritako aurkako txostenean jasotakoa (2021IPB10004 espedientean dagoena) eta Auzitegi Gorenaren azken jurisprudentziak (aipatutako txostenetan azaldutakoak) diotena jarraituz, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa legez kontrakoa dela ulertuz.

A.U.K. langileak 2022ko abenduaren 31ko ondorioekin enplegatu publiko izateari uko egiteko adierazi duen borondatea dela eta kalteordainak jasotzea ez dagokiola ondorioztatzen da, Ordiziako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa legez kontrakoa dela ulertzeagatik. Hori dela eta, **eragozpen etenarazle hau egiten da.**

### **2022/1609. DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak abenduaren 29an sinatutako 37/2022 ingera txostena, (2022KERR0037), A.U.K. udal langileak eskatutako enplegatu publiko izateari uko egiteagatiko prima ordaintzeari buruzkoa.
- Ordiziako Osoko Bilkurak 2022ko urrian eginiko ohiko bilerako akordioa, zeinaren arabera Ordiziako Udaleko Giza Baliabideen Arrazionalizaziorako Programa bertan behera uzten zen, baina 2022an erretiroa hartu edo langile publiko izateari uko egiten zioten langileak akordiotik kanpo utziz.
- 2022ko abenduaren 19ko 1338/2022 Alkate Dekretu bidez erabaki zen *“Baiaestea Ana Urkizu Kerejeta udal enplegatu publikoak enplegatu publiko izateari uko egiteko eskaria, 2022ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin, egun horretan amaituko delarik Ordiziako Udalarekin duen funtzionario-harremana.”*. Dekretu beraren bidez erabaki zen *“Baiaestea Ordiziako Udaleko Giza Baliabideen Arrazionalizaziorako Programako 5. artikulua aplikazioa eta ondorioz, aitortzea*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

31.818,00€-ko kalte-ordaina zerbitzu harremana erretiro aurreratuaren bidez amaitzeagatik.”.

- Primaren ordainketa 2022 Udal Aurrekontuan onartuta dagoela 1 161.03.221.00.0224 2022 (3010) partidari; eta aipatutako partidak nahikoa kreditua daukala.

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

A.U.K. langileari aurrejubilazio prima ordaintzea, 31.818,00 eurokoa, 1 161.03.221.00.0224 2022 (3010) partidaren kontura.

Mila Sukiak, Elkarrekin Podemos Ordizia Oraineko zinegotziak, adierazten du Ana Urkizu Kerejeta Ezenarro ezartzen duela 2022/1609 Dekretuan, eta akatsa dagoela. Beraz Ezenarro abizena kendu eta dekretua zuzentzea eskatzen du.

Mila Sukia, concejal de Elkarrekin Podemos Ordizia Orain, manifiesta que en lo establecido en el Decreto 2022/1609 existe un error. Por lo tanto, solicita la corrección del decreto. Se debe de retire el apellido Ezenarro.

.....

### **ONARRIZKO BALDINTZEN AURRETIAZKO FISKALIZAZIO ETA/EDO KONTU-HARTZEA MUGATUAREN TXOSTENA. 38.txostena**


1. Espediente-zenbakia SPOG0021
2. Espediente mota: Langileen aparteko orduak.
3. Gastuaren fasea: ADO
4. Gastuaren fasearen zenbatekoa: 1.223,92 €
5. Aurrekontuaren aplikazioa: 1 kapitulua

### **LEGERI APLIKAGARRIA**

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa. IV. TITULUA: KONTROL KONTU-HARTZAILEA
2. 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.

### **AURREKARIAK**

- 1.- ORDIZIAHITZEKO 31.13 artikulua honako hau zehazten du: “dena dela ,langile



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

*batek urtean zehar lanalditik kanpo egiten dituen orduak ezin izango dira 60 baino gehiago izan ohiko lanaldia badauka, eta lanaldia murriztagoa badauka, ordu kopuru horren zati proportzionala “*

2.- Kontu-hartzailearen 2022IKOR0024 espedientearen dagoen txostenean pertsonal sailari eskatzen zitzaion, orain arte ez bezala, aparteko orduen ordainketari dagokion espedientearen izapidetzea eta kontu-hartzailetza honi helaraztea, fiskalizatu eta langileek egindako aparteko orduen kontrola eraman ahal izateko, ORDIZIAHITZEK ezarritako muga hori langileren batek gainditzen ote zuen kontrolatzeko.

3.- SPOG00 espediente motan jasotzen dira langileek egindako aparteko orduak eta hauen ordainketa. Espediente mota horietan Udal idazkariaren txostenetan aipatzen da 2021 eta 2022 urteetan hainbat langilek 60 orduko muga gainditu dutela, eta ohartarazten da egoera hori zuzendu egin behar dela. Hain zuzen ere, SPOG0009, SPOG0016 eta SPOG21 espedienteetan atzeman da hainbat langilek aipatutako 60 orduko muga hori gainditu dutela 2022an.

4.- Udal idazkariak 2022ko abuztuan 19an egindako txostenean eskatzen da:

“-Saileko plangintza eta antolaketa egitea aparteko orduak ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin.

-Brigadako lan-taldea handitzea, plangintza nahikoa izan ezean.


-Eta guztia Zerbitzuburuari eta Pertsonaleko arduradunei jakinaraztea.”

5.- Pertsonal sailetik kontu-hartzailetza honetan jasotako datuen arabera, aparteko orduen kopurua 60 ordukoa baino handiagoa izan duten langileak, eta kopuruak, 2022KERR0028 espedienteko ingera kontabilizatu zenetik nomina hau kontabilizatzen denera arteko ordu guztiak kontutan izanda, honako hauek dira:

Langilea	Aparteko ordu arrunta	Jai egunetako aparteko ordua	GUZTIRA
GHEORGHE DUMITRU	2,5x35,95=89,88	4,5x41,08= 184,86	274,74
TOMAS URDANGARIN		4X 38,04= 152,16	152,16
JAVIER MUJICA		2,5X38,04= 95,1	95,1
JUAN CARLOS ARANBURU		8x41,08= 328,64	328,64
IKER UGARTEMENDIA	1,5X33,29= 49,94	8,5X38,04= 323,34	373,28
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.223,92 €</b>

### OINARRIAK:

21/2003 Foru Arauaren 70.3.c artikulua jasotakoaren baitan *“ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordinketa-aginduari badagokio,*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

*espedienteren izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte beti ere honelakotan gertatzen denean: c) “ **espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batera utzi direnean**” .*

32/2018 Foru Dekretuaren 12 3. C artikuluaaren arabera: Aipatutako 70.3 artikuluaaren c) apartatua jasotako kasuan, **bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea**, honelakoak gertatuz gero c)“ **baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatua gelditu daitekeenean** edo , kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diru-zaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean

### ONDORIOAK:

Azaldutakoan oinarrituta, **eragozpen etenarazlez** fiskalizatzen dira goiko taulan azaldutako aparteko orduen ordainketak, ORDIZIHAITZEKO 31.13 artikulua dioena ez betetzeagatik, idazkariak eta kontu-hartzaileak alde aurretik egindako txostenetan ohartarazitako egitatea izanik.

Zerbitzu Orokorretako arduradunari eskatzen zaio aparteko orduen erabilera azter dezan, etengabe, egiturazko lanak egiteko erabiltzen direla atzematen bada aparteko orduak eskatzeari utzi beharko dio, lantaldea berregituratuz eta handituz.

### 2022/1610. DEKRETUA

#### HONAKO HAU IKUSITA:

-Kontu-hartzaileak 2022ko abenduaren 29ko datarekin sinatutako 38-2022 (2022KERR0038) ingera txostena.


-Udal zerbitzuak egiten dituzten langileek duten lan karga eta hori antolatzekeo baliabide falta.

-Udalak herritarrei zerbitzu egoki bat emateko eskaintzeko duen betebeharra, eta beraz, sortzen diren lan eta egiteko guztiei aurre egiteko beharra, dituen baliabideak erabilia.

-Udaleko lanpostu zerrendan pertsonaleko teknikari postua sortu zen 2021an, eta orain arte ezinezkoa izan da hornitzea, baina 2022ko irailetik aurrera postua hornitu da; beraz, besteak beste, zerbitzu orokorretako sailaren beharrak aztertzeaz eta antolatzeaz ardurako da eta zerbitzuburuarekin batera beharren eta baliabideen azterketa sakona egingo du, baliabideak beharretara egokituz, eta beharrezkoa izango balitz egiturazko langile kopurua handituz.

#### HONAKO HAU ERABAKI DUT:

-2022SPOG0021 espedientean dauden langileen aparteko ordu guztiak ordaintzea, 60 orduko muga gainditzen dutenak barne **(1.223,92 €)** ordu horiek Udalak zerbitzu egoki bat eman ahal izateko, interes publikoaren onura ziurtatzeko, egindakoak direlako.



-Zerbitzu orokorretako lan taldea berrantolatzeko konpromisoa hartzea eta epe ertainera ORDIZIAHITZEK 31.13 artikuluan dioena errespetatzea.

Udalbatzarra, jakinaren gainean geratu da.

.....

2023.- 01 txostena

**KONTU-HARTZAILEAREN INGERA ORRIA (2023/01):**

**NOTA DE REPAROS DE LA INTERVENTORA (2023/01)**


**AURREKARIAK:**

**ANTECEDENTES:**

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritzasaitetik:

*El Departamento de Secretaría da cuenta a la interventora de los siguientes contratos que están fuera de plazo:*

Enpresaren izena / Nombre de la empresa	Kontratuaren xedea / Objeto del contrato	Kontratua / Contrato	Bukaera data / Fecha de finalización	Luzapenak / Prórrogas	2021ean gastua / Gasto en 2021
Gesmupal, S.A.	Dirubilketa exekutiboa / Recaudación ejecutiva	2003/11/03	2007/11/03	Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	32.808,72 €
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina / Conserje de cultura	1986/04/15	Mugagabea / Indefinido	Urteko luzapena / Prórroga anual	45.422,32 €
Landarri S.L.U.	Hilerriaren zerbitzua / Servicio cementerio	2005/03/10	10 urte / 10 años 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte / Decreto de prórroga hasta nuevo contrato	24.111,65 €
Erro Koop. Elkartea	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa / Gestión D'Elikatuz	2012/07/24	Gehienez 4 urte / max. 4 años 2016/07/24	Kontraturik gabe / Sin contrato	96.860,38 €
Iberdrola clientes, S.A.U.	Energia elektrikoa / Energía eléctrica		2020/04/30	Luzatua esleipena atera arte / Prorrogado hasta adjudicación	201.307,66 €
Euskaltel, S.A.	Zentralita eta mugikorak / Centralita y móviles	2014/05/20	2018/05/20	Luzatua esleipena atera arte / Prorrogado hasta adjudicación	35.756,34 €
Biok Zerbitzuak, S.L.	Pertsonal laborala kontratatze laguntza teknikoa / Asesoría en contratación laboral	Kontraturik gabe / Sin contrato			15.002,79 €



## Ordiziako Udala

2023IOSB0001

2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L.	Inpresoraren mantenu kontratua / Mantenimiento de impresoras	Kontraturik gabe / Sin contrato			10.502,45 €
Ordiziako Musika Eskola S.L.	Musika eskola zerbitzua	Kontraturik gabe / Sin contrato		Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	59.280,00 €
Jose Ramon Garmendia Garmendia	Zerbitzuetako lanak / Servicios	Kontraturik gabe / Sin contrato		Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	43.087,83 €
Goxara S.L.	Eguneko zentroa eta etxez etxeko zerbitzua / Servicio de Centro de día y ayuda a domicilio			luzatua esleitu arte / Prorrogado hasta licitación	309.352,93 € 352.603,68 €
Repsol Butano, S.A.	Urdaneta eskolako propanoa				6.005,86 €
Alotza Haur Eskolako guraso batzordea	Alotza Haur Eskolako kudeaketa / Gestión de Alotza Haur Eskola		2022/06/08		363.450,00 €
Cuarhtoset Talent & Technology, S.L.	Nominen kalkulua / Cálculo de nóminas	Kontraturik gabe / Sin contrato			16.865,36 €
IZT KOOP. ELK.	Sistema informatikoaren mantenu lanak / Mantenimiento del sistema informático	Kontraturik gabe / Sin contrato			17.598,24 €
AEG Sistemas	Eraikinen instalazio eta mantenu kontratua	Kontraturik gabe / Sin contrato			4.509,07 €
Serkoten	Mantenu kontratua	Kontraturik gabe / Sin contrato			197,62 €
EDP Clientes, S.A.U,		Kontraturik gabe / Sin contrato			9.623,78 €
Izan intervención familiar comunitaria, S.L.	Esku hartze soziohezitzaile eta psikosoziala ematea / Intervención socioeducativa y psicossocial	Kontraturik gabe / Sin contrato	2022/10/21		250.996,27 €

### **A) Aplikagarria zaizkion arauak:**

**a.4) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.**

**“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”**


**Sektore publikoko kontratuen iraunaldia**

